

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 220. zkia. 2014ko otsaila



Sandra Cid, LHIK-ko gazteekin aurrera



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga...** Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madridgo Unibertsitate Konplutensean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González,
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIO**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Amaia Arriaga, Antonio
Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Pello Mugarza,
Valentin Mugarza
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Leire Elustondo, Estibalitz
González, Jon Ander Lerin,
Roberto Marcano, Tatiana
Marcano, Pello Mugarza,
Valentin Mugarza, Sara
Rodríguez, Leire eta Asier
Unanue, Dorleta Vidal
eta Jabi Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.400 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

MENDIKO MOZOLOA *Cárabo común Strix aluco*



Sinestezina badirudi ere, buruari ia bira osoa emateko gauza da eta gaueko isiltasunean, orbel artean soinu txikiena guk entzun ez arren, bere belarri finak sumatuko du. Konektatuta beti bere radar natural paregabea, geldi-geldi daki egoten, adi, ataizean, karraskari despistaturen bat pare xamarrera noiz etorriko zain; hark ezer sentitu orduko, gainean izango du! Gauaren isiltasunerako propio diseinatuta bezala, belusaren moduko luma leun-leunak ditu; hegan doala ere ez dute haren hegoek zarata txikiena aterako, bere erpeetan jausiko diren kalterako. Indar handikoak ditu berauek eta zaurituta topatuz gero, zeharo arriskutsua da oratzea, erpeka bere burua defendatze-
ra egiten du-eta.

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Falilou Diop, Senegal	BOTEPRONTOAN 16 Ines Arano
ELKARRIZKETA5-7 Sandra Cid, gizarte integratzailea	KIROLZALE 17 Jon Ander Lerin
MALLABIAN ZER?8-9 Egoitz Txurruka, 'El Conquis' programan	IRITZIA 18 Korrika egitea koldarrena da?
ERREPORTAJEA 10-11 Mariana Magunazelaia txirindularia	SALEROSKETAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-13 Berbetan Jardunaldiak martxoan	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14-15 Hartzak 25 urte / Sagardo Eguna	KALEKO INKESTA21 San Valentin eguna
	AGENDA22 Martxoko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Falilou Diop

Senegaleko iparraldekoa da Falilou, San Luis hirikoa. Duela 6 urte laga zuen bere sorterrria, bizitza hobea topatzeko esperantzarekin. Gizon alaia eta irribarre zabalekoa den arren, bere herrialdea gogoratzeak begirada goibeltzen dio.

- Nolako zen zure bizitza Senegalen?

Familiak zituen lurrak lantzen nituen, nekazaria nintzen. Familia ugaria gara eta lur horietan ateratzen genuen denok bizimodua. Baina gauzak txarrera zihoazen, lurrak gero eta gutxiago ematen zuen eta azkenean alde egin behar izan nuen. Senideak bertan geratu ziren.

- Zenbat denbora daramazu Ermuan?

Bi urte baino gutxiago. Aurretik, Bolibarren eta Markinan egon naiz 3 urtez. Senegaleko ezaguna dut Markinan eta berak lagundu ninduen hasieran. Ermuan ere pertsona eskuzabalak topatu ditut, laguntza desinteresatua eman didatenak.

- Senegaletik Euskal Herrira. Aldaketa erraza izan zen?

Ez, aldaketa handia izan zelako. Den-dena da ezberdina. Afrikatik gatozenok badakigu zeharo ezberdinak diren gauzak topatuko ditugula hemen: kultura, janaria, ohiturak, eguraldia...

- Zer egin zitzaizun gogorren?

Beharbada, eguraldia.



- Nolako eguraldia duzue bertan, bada?

14 edo 12 gradu direnean, hotz egiten duela esaten dugu, horrek izaten baitira tenperatura hotzenak. Beroak, 45 gradutik gora.

- Zerk harritu zintuen hemen?

Gauza gehienak arrotzak ziren niretzat, baina zerbait aipatzekotan: zergatik euskaldunak ez diren espainolak sentitzen. Oraindik ere arraroa egiten zait eta lagunaren artean askotan komentatzen dugu, ez dugu ulertzen. 'Non gaude?' galdetuz gero, 'hemen' erantzuten dizu jendeak.

- Eta nolako harrera egin zizuten hemen?

Hasieran, ezagutu barik, jendea nahiko itxia da. Gero, ikaragarriak dira!

- Zer botatzen duzu faltan?

Nire herrialdea, bere osotasunean. Ez naiz sekula bueltatu eta horrekin amets egiten dut.

- Lanean zaude?

Orain ez, duela hilabete batzuk bukatu zitzaidan kontratua. Mekanizatuan egin dut lan, hiriko mantentze lanetan... Mekanizatua da gehien gustatzen zaidana eta hainbat ikastaro egin ditut horretan trebatzeko: guztira 1.500 ordu baino gehiago!

- Gaztekeraz ondo moldatzen zara. Bazenekien zerbait etorri aurretik?

Ez, hitz bat ere ez.

- Eta euskara ikasteko asmorik baduzu?

Bai, Euskal Herrian gaude! Izan ere, hemen 8 hilabete neramatzanean ikasten hasi nintzen. Baina bestelako ikastaroak egin behar nituen eta euskara alde batera laga behar izan nuen.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Sandra Cid, Ermua-Mallabiko LHIK-ko gizarte integratzailea:

“Ikasleen zergatiak topatzeak euren jokabidea ulertzeko giltza ematen digu”

Lehen Hezkuntzako irakasle-ikasketak ditu Sandra Cid ermuarrak, Gizarte Pedagogian lizentziatua da eta Neuropsikologia eta Hezkuntzari buruzko masterra egina du. Ermua-Mallabiko Lanbide Hastapeneterako Ikastegian (LHIK) igaro ditu azken 4 urteak, gizarte integratzaile gisa. Nekaezina dela diote bere lankideek eta gogor egiten duela lan ikasle, irakasle eta familiekin, zentroan dauden gazteek bizitzan aurrera egin dezaten. Duela 2 urte, gainera, LHIK-k duen gizarte eta hezkuntza programa moldatu zuen, Europar Batasunak agindutako zortzi gaitasun oinarrizkoak erantsi ahal izateko. Zentroak 86 ikasle ditu egun, 16 eta 18 urte bitartekoak.

- Zein da zure betebeharra Ermua-Mallabiko LHIK-n?

Ikasleek dituzten arazo pertsonalei irtenbidea ematean datza nire lana. Xede hori lortzeko beharrezkoak dituzten erremintak ematen dizkiet. Horrez gain, baliabideak eskaintzen dizkiet heziketa-sistemara bueltatu edota lan munduan abiarazteko; gainera, Udalekoak diren eta ez diren zerbitzu eta profesionalak ikasleekin lotzen ditut. Zentroko gizarte eta hezkuntza programak jasotzen dituzte guzti hauek eta ni naiz programa horren arduraduna.

- Zein da LHIK-ko ikasleen profila?

16 eta 18 urte bitarteko ikasleak dira eta bi multzotan sailka daitezke. Alde batetik, DBHn porrot egin dutenak; bestalde, atzerritik etorri berri diren gaztetxoak. Gutxi batzuk ez dira sekula eskolara joan, beraz, hona heltzean, ezin dira eskolatu euren adinari dagoen ikasketak-mailan.

- Zer nolako arazoak izaten dituzte?

Ezberdintasunak dauden arren, motibazioa galtuta daukate oro har, ikasketei uko egiten diete, autoestimua baxua dute, eta zailtasunak dituzte bai ikasteko zein pertsona-arteko harremanetarako.

- Desegituratutako familia eta gizarte-maila baxua dutela pentsatu ohi da...

Ikasle askoren errealitatea den arren, kontrako



ere gertatzen da. Familiak nukleo sendoak dituzte batzuek, balore-sistema zorrotzak dituztenak.

- Zeintzuk baliabide erabiltzen dituzte ikasleen jokoan eragiteko?

Gizakiok berezko ditugun erremintak: hurbiltasuna, elkar ulertzea, entzutea, motibazioa, laguntza, maitasuna, indargarri positiboa, arauak betearaztea, mugak ipintzea... Eta garrantzitsuena: alde batetik, bakoitzak duen onenaz jabetu eta bultzatu; bestetik, bakarrak eta ezberdinak direla sentiaraztea.

- Nola erantzuten dute?

Egia esan, oso ondo. Batzuetan nire bila datoz eta orduan konturatzen naiz nire arreta eskatzen dutela, nigan konfiantza dutela. Lan jarraitzeko indarra ematen dit horrek.

- Zuk ezarritako arau eta mugak berehala onartzen dituzte?

Nerabeak dira eta amore ematea kostatzen zaie askotan. Hala ere, hemen ez diegu ezer berririk irakasten, eurek badakite bizitzako esparru guztietan arauak daukela. Zentroan ere araudi bat dugu, eurekin lantzen duguna, eta azkenean agindutakoa betetzen dute.

- Zaila ematen du...

Baina ezinbestekoa da. Elkarbizitza eta giro lasaia eta naturala sortu nahi badugu, behintzat.

- Ikasle bakoitzarekin modu ezberdinean jokatu behar duzu?

Bai. Lan honetan beharrezkoa da asko begiratzea eta ikusten jakitea. Sei ordu igarotzen ditut egunero neska mutil hauekin eta azkenean ezagutzen ditut. Badakit zeinek behar nauen, zein etorriko den nire bila, zeintzuk diren independenteagoak, noraino presionatu ditzakedan, zenbat eskatu... Gauza ho-

riek neurtzen joan behar duzu, ikasleek zu neurtzen zaituzten bezala. Eurek ere, zure muga non dagoen jakin nahi izaten dute-eta.

- Taldeka edo banan-banan egiten duzu lana eurekin?

Bietara. 'Orientazio eta tutoretza' deritzan ikasgai ematen diet talde guztiei, astean bi orduz. Bestalde, atsedendaldi, jolas-ordu eta tailerretan ere eurekin egoten naiz eta, beharra sumatzen dudanean, tutoretza pertsonalak egiten ditut.

- Zer lantzen dute aipatu duzun ikasgai horretan?

Lehen mailan harrera lantzen dugu. Ikasleak lur jota datoz gehienetan, defentsiban, eta klaseetan ahalduztzen saiatzen naiz. Gainera euren arteko harremanak eta gurekikoak hobetzen ditugu eta gure gizartearen nondik norakoak azaltzen dizkiet. Hau da, non bizi garen, zein den gure errealitatea (sexualitatea, biolentzia, giza-eskubideak, drogak, familia...). Bigarren

“Nerabeak dira eta amore ematea kostatzen zaie askotan”



mailan, berriz, lan edo heziketa munduan sartzeko beharrezkoak dituzten baliabideak ezagutarazten dizkiet.

- Zure lanak harremana du beste irakasleek egiten dutenarekin. Ados egoten zarete beti?

Langile guztiak gai orotan ados egotea ezinezkoa da. Edozein motatako lanean, gainera. Gure esperientzia, ezagupen eta formazioa dela-eta, hezteko estilo ezberdinak ditugu; baina estilo guztiak integratzen ahalegintzen gara. Egoera jakin baten aurrean erantzun berdina eman behar dugu irakasleok, mezu bera transmititu. Ikasleek aurrean bat izateak segurtasuna ematen digu bioi.

- Orduan, irakasleekin ere lan egiten duzu?

Batez ere ikasleekin lan egiten dudan arren, irakasleei ere laguntza ematen diet.

Gatazkaren bat sortzen denean, esaterako, orientatu egiten ditut, nola jokatu behar duten esan. Gainera, bestelako profesional eta zerbitzuekin koordinatuta nago: familia-hezitzaile, psikologo, psikiatra, medikuzentro, gizarte-langileekin...

- Familiekin biltzen zara?

Gurasoak tutoreekin biltzen dira seme-alaben ikasketez hitz egiteko. Nik bestelako 'topaketak' egiten ditut senideekin, gai pertsonalagoak jorratzeko: motibazioa eta autoestimua nola landu, komunikazioa hobetzeko pausuak, arauak eta mugak ipintzen erakusteko... Familiek oso ondo erantzun ohi dute.

- Jakina da Ermua-Mallabiko LHIK-k lan handia egiten duela bertako gazteak gizarte-bazterketatik urruntzeko. Zer

"Egoera jakin baten aurrean, mezu bera transmititu behar dugu irakasleok"

suposatuko luke gazte bat gizartetik at geratzeak?

Heziketa eta lan-sistematik kanpo egotea eta gizartean modu aktiboan parte hartzeko aukera galtzea: kulturean, kirolean... denean. Eskura dituzten zerbitzuak ezagutu eta erabiltzen ikasi behar dute, bizitzan aurrera egin ahal izateko.

- Zein da zure lanean gehien estimatzen duzuna?

Ikasleekin horrenbeste denbora igaro ahal izatea. Azken lau urteotan ikasi dudana, sinestezina eta pentsaezina da. Pertsona hauek euren maitasuna ematen didate (bakoitzak bere erara), euren bizitzako ateak zabaldu, laguntzeko aukera eman... Lotura berezia sortzen dugu. Euren portaerek 'zergatia' dute beti, eta erantzuna topatzean, euren jokabidea ulertzeko giltza dugu.

- Gazteekin sortzen dituzun harreman horiei eusten diezue eurek ikasketak bukatzen dituztenean?

Bukatu eta handik urtebetera edo, deitu egiten diegu, zertan dabiltzan jakiteko. Baina hala ere, askotan

etortzen dira bisitan, batzuk astero, beste batzuk ikasturte bat errepikatu nahi dutela esaten digute... Hemen seguru sentitzen dira.

- Zer irakatsi dizu lanak?

Denetik. Hasteko, pazientzia izaten; gainera, sentiberago eta ulerkorragoa bihurtu nau lan honek. Bestalde, egiten dudana lanean horrenbeste sinisten dudanez eta hainbeste gustatzen zaidanez, betetasun sentsazio itzela dut.

- Hala ere, zure lana frustragarria suerta daiteke?

Bai, LHIK euren azken aukera dela esaten didate batzuek. Borrokatzeari utzi eta etsita daudela ikustea oso tristea da.

- Lortu duzu horrelako kontuek zure bizitzan eragin gehiegirik ez izatea?

Orain baietz uste dut, baina kostatu izan zait. Egoera oso gogorak bizi dituzte ikasle batzuek eta orain arte ikusi barik nituen gauza asko ikusi izan ditut. Gainera nahiko sentibera naiz eta kostatzen zait atea itxi eta dena ahaztea. Nahiago nuke, baina ez da posible.

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apändegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Artisau-pizzak • Etxeko razio eta postreak



Etxera eramango dizugu!

943 17 67 74 

Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

Egoitz Txurruka, ETBko 'El conquis' programako partaidea:

“Nik bizitakoa ez da turismoa egiten ezagutzen”

22 urte. Goi Mallako Kirol Zikloa ikasita, orain Irakasle-Eskolako 2. mailan dihardu.

- *Zelan animatu ziñen 'El conquistador' programako kastiñera?*

lazko uztailean izan zen Gasteizko kastina. Aurretik pentsatzen hasia nintzen aurkeztu edo ez, lagunek ere xaxatu ninduten. Egun berean ikasturteko azken azterketa ere banuen. Azterketa ondo eginez gero, joango nintzela erabaki nuen, eta horrela izan zen!

- *Ezer berezirik egin zenuen kastinean?*

Lehen aldia zen aurkezten nintzela... Aldez aurretik pentsatuta nuen bertara joanda zerbait ezberdina eskaini behar nuela aukeratua izateko, eta nik saiakera egin nuen: surfero itxura, emakume zalea...

- *...eta, espero zenuen onartua izatea?*

Ez, ez! Guztira 2.000 bat lagunek egin zituzten kastinak, ez nuen espero inondik inora. Kastina egin eta 10

egunera deitu ninduten aurre aukeraketan nengoela esanez. Abuztu bukaeran azterketa medikua egin ziguten, eta azkenik abuztuaren 31an jaso nuen telefono deia, programa barruan nengoela esanez. Notizia ona! Bertan egotea, pribilegio bat da!

- *Bitartean, eraren baten prestatu zinen?*

Bai, egunero kiroldegira joaten nintzen, igeriketa, yuma, rapel eskala... Denbora librea kirola egiten pasatu nuen. Pisua hartzeko ere asko jan nuen. Mentalki ere gogor egon behar da, ez dakizu zer gertatuko den bost minutura ere. Programak ezjakintasun horrekin jokatzeko du...

- *Jendeak aholkuak eman zizkizun joan aurretik?*

Bai, ondo pasatu, disfrutatu eta nazen bezalakoa izatea!

- *Noiz eta non hasi zen programaren grabazioa?*

Urriaren 9an irten ginen hemendik. Programa 28 egunetan grabatu zen eta ni 10. egunean izan nintzen kalera-tua. Telebistan



maiatzera arteko iraupena izango du. Grabaketa Argentinan, Iguazun, Selva de Misionesen egin zen. Paraje ikaragarriak! Herrialde, kultura, paisaia ezberdina... merezi du! Nik bizitakoa ez da turismoa egiten ezagutzen.

- *Zer eraman ahal zenuten motxilan?*

Aldez aurretik jakinarazi ziguten zer zen beharrezkoa. Mutilok bi kantzontzilo eta objektu pertsonal bat eraman genezakeen. Nik familia, kuadrila eta klaseko lagunak argazkiak eraman nituen. Behin hara helduta, taldeetan banatu eta motxila eman ziguten arropekin; ni talde gorrikoa nintzen, Yaguaretea. Arropak jantzi eta Parana errekarera eraman gintuzten. Hor hasi zen programa, kapitaina bilatzeko frogarekin.

- *Zure taldean zer moduz moldatu zinen?*

Oso ondo. Orokorrean denok ongi moldatu gara. Gure kapitainak Juanito eta Korta izan ziren, beraiekin zoragarri! Mutilak bidaian ezagutu genuen elkar eta gure artean ere primeran. Neskekin ere orokorrean ondo. Harreman polita dugu kanpoan ere, han bizitako abenturak asko lotu gaitu eta.

- *Zelan baloratzen duzu esperientzia?*

Bikain baino hobeto! Momentuz, nire bizitzako abenturarik politena bizi izan dut. Sinestezina! Askok markatu nau bertan bizitako esperientziak.

- *Zer da ikusleak ikusten ez duena?*

Telebistatik gehiena polita ikusten da, baina bizitakoarekin ez du zer ikusirik. Ez da ikusten gogortasuna, pasatzen dugun gose eta egarria, frogen iraupen luzea, ordu hilak... Kamerak ez zeuden





ZERMik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

MALLABIKO
Herriko
taberna



Eguneko platera (3€)
menua bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

gurekin 24 orduak, froga eta dueloak grabatu, eta egunean zehar asko jota 3 edo 4 ordu grabatzen zituzten. Frogak egiteko furgonetan eramaten gintuzten, hori ere ez da agertzen... eta egin beharreko probak fisikoki gogorrrak baziren, aurretik barrita energetikoa eta edari isotonikoa ematen ziguten.

- Kaleratua izatea, gogorra egin zitzaizun?

Bai, oso gogorra, ez nuen espero egun horretan joatea. Bai fisikoki bai mentalki ere oso prestatuta nengoen abenturan urrutira heltzeko, baina dueloa zortezkoa izan zen eta nire esku ez zegoen irabaztea. Kapitainen erantzukizuna oso handia zen eta Juanitok ahal zuena egin zuen, baina azkenean ezin izan genuen irabazi.

- Errepikatuko zenuke?

Duda barik, nire bizitzako esperientziarik onena izan da, oso-oso gogorra, baina ikaragarria! Oso gomendagarria abentura eta leku berriak ezagutu gura dituen edozeinentzat!

- Programa maiatzean bukatuko da, baina jakingo duzu nork irabazi duen ...

Jajaja... bai, baina ezin dut esan!

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

EKITALDI UGARI IZAR GORRIEN ESKUTIK

Martxora begire, ekitaldi ugari antolatu dau Izar Gorri elkartiek. Martxoak 15ien, esaterako, Ermuko PAM musika taldiek joko dau Herriko tabernan gabeko 11:00etan. Horrez gain, martxoan 28reko, ostirala, Flamenko emanaldi bat antolatu gure dabe, eta 29 zapaurreko Bertso Afarixe eitteko asmue daukie. Bertsolariak: Ane Labaka, Agin Laburu eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Beñat Ugartetxea.

SAGARDOTEGIRE URTEERIE

Mallabiko Gazte taldiek antolatue, aurten be sagardotegire urteerie egingo da mar-

txoan 22xen. Urrietako Elutxeta sagardotegire jungo die, eta horretarako autobuse be antolatu dabe. Interesa daukenak, martxoan 15a arte izena emon ahalko dau Herriko eta Bastida tabernetan, 10 euroko aurrerapena ipinitte.

*** BERBALAGUNEKO TALDEA**

Mallabiko Berbalagunek euskara praktikatzeke taldea sortu du. Ostiralero bilduko dira, 18:30etik 19:30era, jubiletxe ondoko plazatxoan. Nahi duten herritar guztiek har dezakete parte mintza-saio haue-tan, baita seme-alabekin datozen gurasoek ere.

BADATOK KARNABALAK!!!

Otsailak 27

Umeeek eskolan txitxiburduntzi egingo dabe.

Otsailak 28

19:30 Andraband batukada taldie tabernaz taberna.

Zatozte danok mozorrotute!

Gaixe: Komikixek.

Mozorrorik eta girorik onena sortzen daben taldiari sarixe: Bildots eder bat.

Martxoak 2

11:30 Futbito partidua: Mallabia - Matiena. (Antolatzaile: Futbito taldea).

Martxoak 4

17:00 Txokolatadie Mallabia I Kirol Etxien.

17:30-20:30 Erromeria izango da nagusi eta txikientzat 'Ansozregi, Larrañaga eta Lutxurdio' taldiaren eskutik.

19:00 Mozorro lehiaketie.

MOZORRO LEHIAKETAKO SARIXEK

12 urtetik beherakuek

Bakarka edo bikoteka: 1. 60€ / 2. 30€ (Trukatzeke txarteletan).

Taldeka: 1. 120€ / 2. 60€.

(Trukatzeke txarteletan).

12 urtetik gorakuek

Bakarka edo bikoteka: 1. 100€ / 2. 50€

Taldeka: 1. 200€ / 2. 100€

(Antolatzaile: Mallabiko Udala, Kultura Batzordie).

Martxoak 7

19:30 Laburmetraiak: 'Ataun of the dead' eta 'Joxean`s hil eben' Kultur Etxien. (Antolatzaile: Orraitio Euskara Elkartie).

Martxoak 9

18:00 Bideo-foruma Kultur Etxien. (Antolatzaile: Nahikari Elkartie).



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak



Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

- Teak, kafeak eta ezta.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
- Teontziak, katiluak...

Oparitzeko neurria egindako otzarak!



GOIENKALE Z/G ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7 ARRASATE
Tel. 943 770 598

Mariana Magunazelaia, txirrindularitzan aurrenengo

Andrak bizikletan ibiltzea zeharo txarto ikusita zegoen sasoiaren, berak hainbat lasterketa jokatu zituen, gizonekin lehia beti ere, eta 1929an Bizkaiko Txapeldun izatea lortu zuen. Gure inguruetakoa lehen emakume txirrindularia kontsideratua dago.

Zerk erakarri ninduen emakume honengan? Ez jakin! Izan ote zen bere argazki hori, bizikleta eskuan eta gona soinean? Edo ni bezala Ermuan jaioa izatea? Zerikusirik izango ote zuen bere gizona eta gure aitaren osaba bat egunsenti berean fusilatua izateak? Uste dut, dena den, bere eragina izan zuela jakiteak nire ume denporako ‘Vamos a la cama’ kantuko Cleo, Tete, Maripi, Pelusín, Coletitas y Cuquin pertsonaiak bere seme Robertok mugimenduz jantzitako marrazki bizidunak zirela. Eta seko liluratu ninduen Eibarko Kezka aldizkariko esaldi hark: *“berihala hasi zan bizikleta gaiñian ibiltzen. Inguru guzti honetan lehenengo andria izan zan, eta Euskal Herri osuan be lehenenguetarikua”*. Ohore handiagorik!

Mariana edo Maria gertukoentzat 1904ko abuztuaren 18an Ermuko Sallabente auzoan jaio zen; aita eurenak torloju-tailar txiki bat zuen bertan. Juan Magunazelaia Muxikako Ibarruri auzokoa

zen jatorriz eta Josefa Loroño emaztea, Morgako alaba, Bizkaiko paraje bertsutik zetorren. Aita, abizenaren kontrakzioa den *Maoma* gaxtizenagatik ezagutua, aharri-joko zalea zen eta herririk herri ibiltzen zen apustuak eginez. Sidecar bat zuen; motor-gidari bera eta alboko karrotxoan aharia jartzen zuen, kopiloto. Hil ere motorrekin izandako istripu baten ondorioz hil zen, 1914an. Maomatarrak Eibarrrera joan ziren orduan eta ezizen hori 3 anai-arrebei egokitu zitzairen per sekula sekulorum. Angel Marcanoekin ezkondu zen Mariana, Eibarren 1929an kalez-kale abestutako aratuste-kopla batzuetako protagonistetako batekin: kantuak aireplanoan egindako bidaia imaginarioa du ardatz eta Oskorri folk taldeak eman zuen ezagutzera ‘Markanokin Ameriketara’ izenburupean. Roberto, bere seme bakarra, 1928an jaio zen Isasi kalean eta 1938an Angel gizona fusilatua zuten Santanderren. Urte batzuk beranduago, Mi-



guel Fernández alargunari lotuko zen; bere mutikoa-arentzat bene-benetako arreba izango ziren haren alaba biak, Alicia eta Visi. Honen iritziz, *“zirt edo zarteko emakumea zen, bizitasun handikoa eta oso azkarra”*.

Eibarko Club Deportivoko Zuzendaritza taldeko bokala 1934an, honen arrimora ga-

ratu zuen bere zaletasunik maitatuenetarikoa, mendia, baina txirrindularitzari esker eman zen ezagutzera, bere izenaren entzutea gaur egunera arte iritsiz. Jesus Loroño txirrindulariaren senidea, hari bezalaxe gustatzen zitzaion pedalak astintzea antza. Armen krisiari aurre egiteko bizikletagintzan hasi

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

berri zen Eibar hartan, laster jiratu zuen bat eta lasterketa batzuetan eman zuen izena. Baina emakume bakarra izatean gizonen kontra lehiatu behar izaten zuen beti. 1929an, Elorrion izandako froga batean, Bizkaiko Txapelketa eskuratu zuen, gizonetako partaide guztien aurretik, noski. Sari bezala garaikur bat eman zioten, berori eskuetan erretratatu, eta urrezko eraztun bat, zigilu motakoa; beti gordeko zuen.

Aitzindari

Ezagutu zutenek, bere sasoiaren aurretik joandako emakumea zela dakarte akordura. Bere seme Robertoren testigantza arabea: “Marlene Dietrich aktorea prakak jarri zituen lehenengoetariko andrazkoa izan zen eta amatxo ez zen atzean geratu. Zirikatu egi-

ten zuten, Marimutil eta horrelakoak esanez, baina berari bost! Ez zion begiratzeko inork esandakoari! Motorrean ibilitako aurrenengo andrea izan zen ere; trebea zen oso eta aidean hartu zion manejoa”. Visi Fernandezek berak ere hortxe: “Zein aurkezten zen orduan gizonetako lehenengoa? Inor ez! Bera beti joan zen bere sasoi eta adinaren aurretik”.

Irene Marcano, bere koinataren esanetan, “fundamentu handiko andrea zen, bizitzan gogor egitea tokatu zitzaiona eta aurrera egiteko bere burua ondo bideratzen jakin zuena”. Kontabilitate kontuetarako erakutsitako dohain eta bere memoria zoragarria nabarmen zuten dituen semeak: “Matematiketan azkarra zen eta aitzitxaren tailarrean bere kargu zeuden diru-kontuak.



Eibarko Club Deportibok kondekoratu zuen egunean emakume bakarra zen bera

Eta memoria gero..., akaba! Pentsa ze, 36ko gerratean lanean ziharduen Matxariako lantegiak Deustura joan behar izan zuen eta, gauzak baretuta Eibarrera itzuli zirenean, berak amu, kartutxo eta gainontzeko ehiza zein arrantzarako 3.000tik gorako erreferentziak lehen egondako leku bereberean ipini zituen!”.

Roberto 1937an, oraindik ume, gerrako ume legez Errusiar bidali behar izan zuen, bertan ia 20 urte eman zituelarik erbesteratuta. Itzuli zenean, hango Zine Akademian goi mailako ikasketekin formatua, Madrilera abiatu zen, marrazki bizidunen munduan lanbidea garatu zezaketen leku bakarra hiriburua zelako; ama berarekin joan zen. Apurka-apurka lekutxo bat egin zuen animazioaren munduan, Estatu mailako zein atzerriko telebista eta pelikuletan parte

hartuz: ‘El Quijote’, ‘Los Picapiedra’ edota Hanna Barberaren hainbat filmetako protagonistei mugimendua jartzeaz arduratzen zen. Roberto bertara ezkondu, 4 bilobak bertakoak... zenbat eta lotura handiagoa izan Madrilekin, orduan eta konplikatua zen Euskal Herriko txokora itzultzea.

Emakume saltsero eta ausart hura Gaztela herrian ere horrelakoxea izan zen. Edozertarako prest beti: orain aseguru-etxe bateko kobratzaile, orain dirua biltzen Gurutze Gorriaren alde... azken urteak emandako Zahar Egoitzan ere ezaguna zen bere dinamismoagatik. Maria Maoma Madrileko Arganda del Rey hirian hil zen 2000ko irailaren 18an, baina bere errautsek Arrateko zelai ondoan hartu zuten atsedean. Ezin amatxo gertuago egon Amatoxorengandik!

Estibalitz González



Roberto semea Errusiatik etorri berrian.

 NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



 MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

 Ferreteria / Burdindegia

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

ANBOTO

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

 Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

 Montis DQ
Mouth

ZINEGOTZI BI ALDATU DITU ERMUKO EHBILDUK

Jesus Maria Sarasua 'Txikito' eta Manuel Graña zinegotzien kargu uztearen prozedura abian jarri du Ermuko EHBildu udal talde politikoak. "Arrazoi pertsonalak direla medio, aldaketa egin beharrean aurkitu gara", diote arduradunek. Jabi Gomez eta Iker Hidalgo ermuarrek hartuko dituzte aurrekoen postuak. 'Txikito' eta Manuri egindako lanagatik eskerrak eman nahi dizkie taldeak "nahiz eta beste maila batean lanean jarraituko duten. Aldi berean, Jabi eta Ikerri ongi etorria eta eskerrak eman, beraien konpromiso berriagatik, Ermua hobea baten alde lanean jarraitzeko", azaldu dute.

VII. PIROPO LEHIAKETA MARTXAN

Udaleko Euskara Sailak VII. piropo lehiaketa antolatu du. Ekimen horretan parte hartu nahi duenak euskaraz idatzitako piropoak aurkeztu besterik ez ditu egin behar (Udal Liburutegian egongo den kutxatxoan sartuta edota euskara@udalermua.net posta elektronikora edo 616 02 75 85 telefonora bidalita). Piropoarekin batera, adina eta harremanetan jartzeko telefonoa ere adierazi beharko dira. Aurrekoetan bezala, bi kategoria egongo dira, 18 urtetik beharagoentzat eta 18 urtetik goragoentzat. 100 euroko erosketa-txekea eta bi laguntzako La Perlako zirkuitua, masajea eta menua jasoko dituzte irabazleek hurrenez hurren.

Palindromoen liburua kaleratuko du Markos Gimeno

Berak sortutako palindromoak eta hitzperimentuak batzen ditu Markos Gimeno www.zerorajasoa.com blogean. Duela 7 urte, gainera, palindromo-ariketak sortzen hasi zen aipatutako webgunean eta orain ariketa guzti horiek liburu batean jasotzeko asmoa du. '131 aza' izena izango du liburuak eta 'crowdfunding' bitartez finantzatzeko asmoa du Gimeno, hau da, aurre-salmentaren bidez. Horretarako 'verkami' plataforman emango du sortzaile honek bere liburuaren berri, martxoaren 3an. Egun horretatik aurrera, proiektua aurrera ateratzea nahi dutenek, 40 eguneko epea izango dute 20 euroko ekarpena egiteko. "Nire asmoa 500 ale argitaratzea da -dio Markosek-, eta horretarako 150 lagunengana laguntza jasotzea espero dut. Liburuak edizio oso zaindua izango du eta bertan, hainbat hizkuntzetara itzuliko ditudan palindromoak irakurri ahal izango dira". Erronka lortuko ote duen ikusteko badago ere, aurkezpen-bideoa prestatzen ari da: "Ermuan aurkezpena egingo dut, jakina, baina aurkezpen nagusia Hospitaleten egingo dut, maitatzen, Nazioarteko Palindromisten Klubean", dio Gimeno.



PALINDROMO ARIKETAK

A3A



Markos Gimeno Vesga

Sagardotegira irteera apirilaren 5ean izango da

Urtero legez, sagardotegira irteera antolatu du Berbalagun egitasmoak. Hernanira osteratxoa egin nahi dutenek, ermua_berba@aek.org helbidera idatzi edo 943171940 telefonora deitu beharko dute. Apirilaren 5ean, zapatua, 12:00etan irtengo da autobusa Agirre Kirolak-etik, Hernaniko sagardotegi batean bapoz bazkaldu eta 20:30ean bueltan egongo dira izena ematen duten guztiak. Prezioa, 40 euro.

200 moxal kilo erreko dira plazan martxoaren 15ean

'Elkartzen gaitu' mugimenduak elkartasuna eta gastronomia uztartuko ditu berriro ere martxoaren 15ean. Egoera ekonomiko latza duten herriko familientzako dirua biltzeko asmotan, 1.000 moxal pintxo ipiniko dituzte salgai plazan, 18:30etatik aurrera. Titanic tabernako Jesus Gonzálezek eta Lobiano Gastronomía Elkarteko Jesús Portugalek gidatuko dute jarduna eta 35 boluntario baino gehiago izango dituzte ondoan, gehienak EMOEko kideak. Moxalak erretzeko 12 ordu inguru beharko dituzte, hala nola 250 ikatz kilo, 30 salda litro eta 100 ogi. Tiketak aldeztu aurretik erosi ahal izango dira, bi eurotan (Titanik, Karikato, Torrekua, DQ Berria eta Akelarre tabernetan) eta horren truke, pintxo eta ardo kopa edo ura jasoko dute erosleek. Egun horretan herrian egon ez arren, laguntza eskaini nahi dutenek, 'fila zero' tiketak erosi ahal izango dituzte, euro batean. Ekaineko paella erraldoiarekin bezala, Udaleko Gizarte Zerbitzuek kudeatuko dituzte irabaziak oraingoan ere. Ekimen hau, 2014ko Jardunaldi Gastronomikoen baitan burutuko da.



Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Asteleheneetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Berbetan jardunaldiak martxoaren 19an hasiko dira



Lur Kortak, Xamarrek, Zuhaitz Gurrutxagak eta Alex Sarduik hartuko dute parte XV. Berbetan Jardunaldietan. Euskararen inguruko hausnarketa-saioak martxoaren 19an hasiko dira, Lur Korta ipuin-kontalari eta kazetariaren eskutik. Lurrek adierazpen taillerra egingo du 17:00etan Lobianon, guraso eta haurrei zuzenduta, eta parte hartzeko asmoa dutenek egunkari bana eraman beharko dute. Martxoaren 26an, berriz, 'Mundua osatzen' dokumentalaren emanaldia egingo da leku berean eta horren ostean, solasaldia gidatuko du Juan Carlos Etxegoien 'Xamar' idazle eta zuzendaria (19:00etan). Apirilaren 9an, Alex Sardui abeslaria (Gatibu taldea) elkarrizketatuko du Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak (ETB1eko Hizkamizka saioa), 19:00etan, Lobianon. Udal euskaltegia, Kaltxango AEK, Euskal Birusa Elkarteak, Eskolabarri eta Anaitasuna ikastetxeak dira ekimenaren antolatzaileak.

Martxoaren 27an eskainiko da Laburbira

Film laburren zirkuitua martxoaren 27an helduko da Ermua Antzokira, ostegunean, 20:30ean. Euskaltzaleen Topaguneak eta Euskal Birusa Elkarteak antolatuta, zazpi film



laburrek osatzen dute aurtengo emanaldia eta guztira ordu eta laurdeneko iraupena du. Filmen artean daude Kameratoia gazteen rallyko irabazlea ('Plaza bakarra') eta Benito Ansola Sariarekin ekoiztutakoa ('Irudi Mintzatuen Hiztegi Poetikoa'). Emanaldia bukatutakotan, azken film horren zuzendari diren Maider Fernández eta María Elorzarekin solasaldia egingo da.

HOGEI ENPRESA SORTZEN LAGUNDU DU DEBEGESAK

Eskualdean ekintzailatza sustatzea helburu duen 'Debabarrena Ekinean' egitasmoaren baitan, 160 pertsona hurbildu ziren Debegesara enpresa bat sortzeko aholkularitza edota informazio eske 2013an. Kontsulta horien ondorioa izan zen, 21 enpresa berri sortzen lagundu zuela Debegesak. "Azken bi urteetako datuei erreparatu gero, gure eskualdean sortu diren enpresa berrien kopurua mantendu egin dela esan genezake. 2012an, 22 enpresa berri sortu ziren Debegesaren laguntzarekin", diote Debegesako arduradunek. Azpimarratzekoa da, 21 enpresa berri horiei esker, 37 lanpostu sortu direla, 2012an baino % 12 gehiago, "hein handi batean, industria arloko 4 enpresa berriren sorrerari esker", diote.

Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

25 urtez Hartza lagun

25 urte. 25 dira Hartza Mañako lezako negualditik esnatu eta Ermuan kalez-kale, birbilketa alaiari darabilkigula. Hartzez mozarrotzeko ardi-narru usaintsu hura jiratu zutenek, 50 urtez isilean gordetako koplaxo haiek batu eta plazaratu zutenek, ohitura bihurtuko zela amesteko ausardia zipitzik gabe kaleratu zirenek... nekez imajinatu zezaketen noraino iritsiko zen asmo guzti hura! Egindako bideari begiratzeko unera ailegatu gara, bidaia-lagun izan ditugun guztiei eskertuz eta modu batera edo bestera partaide izan ditugunak txalotuz. Transmisioa ahoz-ahoz eta belaunaldiz-belaunaldi posible dela erakutsi duzuen guraso, irakasle, ikastetxe, musikari eta talde guztioi zorionak hartzairen magian sinetsi eta ume zein gazteei sentiarazi diozuelako! Labayru Ikastegiak, hainbat ohitura eta herri ondare ezagutarazteko ahaleginetan, Ermuko Hartzairen berri ere ematen du 'Aratusteak Bizkaian' izenburupean 2013an argitaratutako liburuan. Beraz...

Otsailaren 28an, ostirala,
18:00etan, zatoz plazara
hartzarekin!

*"Ohitura zahar hau desagertzia
litzake penarik haundiña!
La la la lara la la..."*

Rafa Prieto, Hartza: "Elurrarekin xarma berezia du hartzak"

2001ean hasi zen Rafa Prieto hartzairena egiten. Tartean Atxondo eta Elorrioren egon da bizitzen eta egun, Eibarren da; hala ere, ez du sekula huts egin.

- **Hartzairena egingo duzun 14. aldia izango da. Zergatik hasi zinen?**

Piedi Eizagirre nire koadrilakoa da eta komentatu zidanenean, baietz esan nuen, larregi pentsatu barik.

- **Jantziak pisua du?**

Bai, 10 bat kilo.

- **Zenbat denbora behar duzu jantzeko?**

10-15 minutu inguru. Tirantedun prakak ipini behar dira lehenengo, jarraian kasaka eta azkenik burua. Ordu eta erdi inguru izaten dut gero jantzita.

- **Urte hauetan eguraldia izan duzu lagun?**

Benoa, denetik izan dut dagoeneko: euria, elurra eta sekulako hego-haizea ere. Aukeran, elurra nahiago dut, bai niretzat zein umeentzat ere xarma berezia duelako. Hego-haizearekin jasangaitza da eta euriarekin pisu itzela hartzen du jantziak eta kalean ez da giro berdina sortzen.

- **Nola begirutzen diote umeek hartzari?**

Txikiengan beldurra edo harridura eragiten dut; 8 edo 10 urte dituztenek, berriz, detaileetan ipintzen dute arreta: Belarritakoak ditu! Zapatak ditu! Umeak pozik ikusten ditut eta ni ere pozik. Hala ere, esan behar dut ez naizela sekula oso umezalea izan; orain bikiak ditut eta txipa aldatu dut.



- **Hartza zaren heinean, umeak izutu behar dituzu?**

Ez, orain ez. Lehen urtean bai, baina ume txikiak ikaratu eta negarrez hasten ziren.

- **Zer suposatzen du zuretzat hartzairena egitea?**

Nik pozik egiten dut. Baina eguraldiak pisua dauka, ume gutxi daudenean ni ere ez naizelako hain motibatuta egoten.

- **Jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, gorputzak aguantatzen badit eta kargutik kentzen ez banaute...



Igeltserotza - Iturgintza

Errekalde

Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com



URRETA burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaia	* Kit altzariak
* Rielak	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Unai Rodríguez eta Beñat Redondo, Gazte Asanbladako kideak:

“Sagardo Egunarekin giro euskalduna sustatu nahi dugu”

Aspaldiko partez, Sagardo Eguna antolatuko da Ermuan berriro ere. Herriko Gazte Asanbladako kideek bultzatutako ekimen hau martxoaren 22an burutuko da, 11:00etan hasita. 14 etxetako 800 sagardo litro egongo dira dastagarri; eta pintxo, trikitilari, dantza eta erromeriaz gozatzeko aukera egongo da.

- Zer dela-eta bururatu zaizue Sagardo Eguna antolatzea?

Irailean hasi ginen buruari bueltak ematen, zerbait antolatu genezakeela pentsatzen, eta ez zitzaigun ezer berezirik bururatzen. Gau batean, Txalaparta tabernan geundela, Sagardo Eguna antolatzea proposatu zigun Binbok. Eta bete-betean asmatu zuen!

- Eta zein da ekimenaren helburua?

Alde batetik, euskal giroa sustatzea eta ohitura zaharrak berreskuratzea; beste alde batetik, herriari bizitasuna eman nahi diogu. Tabernariak kexatu egiten dira asteburuetan jendea Eibarrrera doalako, ba tira, guk gure aldetik zerbait egingo dugu!

- Zenbat sagardo saltzeko asmoa duzue?

800 litro. Eibarren goizean saltzen dutena kontuan hartu eta apur bat gehiago eskatu dugu. Badaezpada. Eibarko Sagardo Eguna baino hobea izatea nahiko genuke!

- Sagardotegi ezberdineta-ko sagardoa ekarriko duzue?

Bai, 14 leku ezberdineta-ko sagardoa lortu dugu. Hasi-eran, herriko tabernarien bitartez lan egiteko asmoa genuen, baina gehienek ez zuten asko inplikatu nahi. Azkenean, Gipuzkoan barrena osteratxo batzuk egin behar izan genituen eta hauxe da emaitza.

- Sagardoa dastatu ahal izateko, edalontzia erostea nahikoa izango da?

Bai eta edalontziarekin batera zapi bat jasoko dute bisitariak. Postuak eta karpak egongo dira plazan, eta zirkuitu antzekoa ipiniko dugu. Bertan, nahi beste sagardo edan ahal izango dute edalontzia erosi dutenek.

- Egitaraua prest duzue?

Bai, lotuta daukagu dena. 11:00etatik 15:00ak arte sagardoa dastatzeko aukera egongo da plazan eta bertan, trikitilariak eta Txindurri taldeko dantzariak parte hartuko dute. 17:30ean, berri-eriz, txosna zabalduko dugu eta 19:30ean erromeria es-



kainiko du Araba dendako taldetxoak, Asierrek eta Amaiak. 21:00etan bukatuko dira gure ekitaldiak eta, ordu horretatik aurrera, tabernen txanda izango da.

- Pintxoak bertan egingo dituzue?

Bai, Erretera Elkarte Gastronomikoko kideek lagunduko digute.

- Zenbat neska-mutil zabilzate antolaketan eta zenbat izango zarete egunean bertan?

20 bat lagunek osatzen dugu Gazte Asanblada, baina gu biok gara kontu honen arduradun nagusiak. Egune-

an bertan ez dakigu oraindik zenbat bilduko garen, koardrilakoak ere apur bat zirikatu behar ditugu... Jendea soberan egotea espero dugu.

- Giro ederra sortuko da...

Bai. Gainera, gu baserritarrez jantzita joango gara eta herriko jendea ere, baserritarrez janztera animatu nahi dugu, San Martin Azokan bezala. Bestalde, baliteke sorpresaren bat egotea: pertsona famaturen bat etor liteke 'txotx'a egitera. Baina ezin dugu aurreratu, oraindik lotu barik dago-eta!

Dorleta Vidal

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

I N E S A R A N O

- **Nola oroitzen duzu haurtzaroa?**

Ez genuen askorik egiten, Ermuan gauza asko egiteko aukerarik ez zegoelako.

- **Margolari trebea eta idazle fina zinen txikitan. Dohain horiei eusten diezu?**

Txikitan gauzak ondo egiten nituen, idazten sariak irabazi ere. Orain... ez dakit.

- **Ikasketak...**

Batxiler zientifikoa egin nuen Eibarko Unibertsitatean, eta gero arkitektura ikasketak hasi nituen Donostian. Baina kazetaritza ikasten bukatu dut. Zeinek esango zidan letretan bukatuko nuela!

- **Zergatik utzi zenion arkitektura ikasteari?**

Irakasteko modu gogorra erabiltzen zutelako, lan gehiegi genuen...

- **Zer da kazetaritza gehien estimatzen duzuna?**

Gauza ezberdinak egiteko aukera.

- **Ikasle bizitzaren alde positiboa eta negatiboa?**

la dena, ikasle izan nahi nuke betiko! Diru falta eta ordutegien finkotasuna da ikusten dizkiodan gauzarik txarrenak.

- **Non gustatuko litzaizuke jardutea?**

Musika aldizkari batean, kontzertuen kronikak idazten zehazki.

- **Oso gogoko al duzu musika?**

Bai, Egara taldeko baxu jolea izan naiz eta hainbat musika tresna jo izan ditut aurretik: pianoa, txistua, panderoa, soinua... Koruan ere aritu izan naiz.



Kazetaritza ikaslea, eta parranda zalea. 20 udara bizi izan ditu. Iñaki eta Begoñaren bigarren alaba da, gazteena. June da haren ahizpa, 4 urte zaharragoa.

- **Zein musika estilo gustatzen zaizu?**

Tolerantea naiz musika kontuetan, beti ere matxistak ez badira. Queen taldea bezalakorik ez dago!

- **Biziorik?**

Juerga, lagunekin edo kaLEAN egotea...

- **Definitu zure burua...**

Lasaia naizen arren, gauza askotan sartzen dut muturra, ekintzak antolatzeko prest nago beti.

- **Bidaia bat nora?**

Nora ez? Edozein lekutara bidaiatuko nuke, leku guztiek dute zer bait.

- **Zein txoko ezagutu duzu?**

Alemanian egon naiz.

- **Gehien erakartzen zaituen usaina?**

San Martineko taloaren usaina... marketin estrategiarik hoberena da!

- **Mendia edo itsasoa?**

Itsasoa.

- **Amets bat...**

Urrun bizi nahi izan dut beti, etorkizunean lana edukitzea...

- **Eguneko unerik hoberena?**

Afal ostea, unerik lasaiena, dena egina dudalako.

- **Jateko gogoko duzun hori?**

Txikitan oso jatun txarra nintzen eta, azalorea ezik, orain dena dut gogoko.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Momentuaren arabera, txorakeriekin barre asko egiten dut nik.

- **Bada urduritzen zaituenik?**

Jendearen pasibotasunak. Batzuek gauza asko nahi, baina mugitu ez.

- **Noizbait lan egin duzu?**

Monitore lanak egin ditut Txindurri dantza taldean eta udalekuetan; gainera, zenbait ardura izan ditut Gazte Asanbladan zein Vertigo Rock kontzertuak prestatzean.

- **Gazte Asanbladako partaide zara, beraz. Zein helburu dituzue?**

Martxoaren 22an ospatuko den Sagardo Eguna antolatzen ari gara orain. Baina urte osoan zehar euskal giroa hedatzen, berdintasuna aldarrikatzen eta aukera ezberdinak planteatzen jarduten dugu, besteak beste.

- **Zer falta da Ermuan?**

Gauza gehiegi! Gazteen-tzako ekintza gehiago, herria euskalduntzea, udaletxearen laguntza gauza askotarako...

- **Nola euskaldunduko zenuke herria?**

Euskara eta San Martin egunetatik haratago joz, eta egunerokotasunari begiratu. Euskal giroa gehiago zabalduz, noski!

- **Bizitzako egunik zoriontsuena...**

Zapatuak!

- **Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Originaltasuna, gainerakoek zer pentsatzen duten axola ez izatea...

- **Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Abortuaren aurkako legea atzera bota dutela eta Galdarenekin dimititu duela.

Leire Elustondo



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Jon Ander Lerin, kirolaria:

“Nire lehen ‘Hiru Handiak’ proba 18 ordutan bukatu nahiko nuke”

Gorputz-hezkuntzako irakaslea den arren, euskara eskolak ematen dihardu Tuteran. Saltsa guztietako perrexila dela aitortzen du baina azkenaldian, kirolean ipini du arreta Jon Anderrek. Otsailaren 8an egindako duatloian, lehen ermuarra izan zen, 1h14:15 denborarekin. Gainera, mendi lasterkak eta kilometro bertikalak egiten ditu, Hiru Handiak proban parte hartzeko prestatzen den bitartean. Atletismoko entrenatzaile titulua ere badu.

- *Sailkapen orokorrean 68., baina gainontzeko ermuarren aurretik sailkatu zinen...*

Baina esan beharra daukat, Ermuko onenek ez zute-la parte hartu.

- *Zure lehen aldia izan da Ermuko duatloian?*

Bai, eta oso gogorra egin zait. Erritmo onean hasi nintzen arren, aurreko egunetako nekea igarri nuen. Egunean bertan, gainera, goizeko 7:00etan hasten gara Oso-totsekoak lanean, eta horrek ere ondorioak ditu.

- *Zein da zatirik gogorrena?*

Mallabira justutxo heldu nintzen, San Pedro igo... Eskertzekoa da baina, zenbat jendek animatu ninduen.

- *Eguraldiak ere eragina izan zuen?*

Bai, nik eguzkiarekin askoz hobeto funtzionatzen dut. Gainera, hotz zegoen eta ez nintzen behar bezala jantzi; bukatutakoan etxera joan behar izan nuen, gaixorik.

- *Bizikleta ala korrika egitea nahiago?*

Bizikletarekin gehiago disfrutatzen da, deskantsatzeko aukerak dituzu. Korrika egitean, arnasestuka noa. Mendi disfrutatzen dut gehiago, Urkora igotzen, adibidez.

- *Zein da zure marka?*

29:05, ambulatortatik Urko puntara. Jendeak esaten dit horrela ezin dudala disfrutatu, baina ez da egia. Berdinberdin disfrutatzen da. Kirolariak garen heinean, erronka batzuk ipintzen ditugu. Topera heldu, bihotza lehortzeaz eta arnasa ezin harturik, baina pozik.

- *Asko entrenatzen duzu?*

Egunero gimnasia noa 2 orduz eta asteburuetan atsedenaldiran bat egiten



dut. Hala ere, entrenamendua ez dator bat lortzen ditudan emaitzekin.

- *Zer dela eta?*

Oso urduria naizelako. Lasterketetan, eta aurreko egunetan, oso urduri ipintzen naiz eta tripako mina izaten dut. Urduritasunak lehiakortasunari eusten laguntzen du, egia da, baina niri ez dit onik egiten.

- *Zertan ibiliko zara datorren hilabeteotan?*

Hiru kilometro bertikal egiteko asmoa dut (Xoxote, Txindoki eta Beriain), polito ibiltzen naiz. Horrek, gainera, ekainean egingo den Hiru Handiak lasterketa prestatzeko balioko dit. Bestalde, epe luzera, triatloietan has-teko asmoa dut.

- *Zer espero duzu Hiru Handiak proban?*

Lehentasuna bukatzea da, baina gustatuko litzaidake 18 ordutan egitea. Uste dut egingarria dela.

- *Zer da kirola zuretzat?*

Lehen mailan familia eta lagunak ditut; bigarrean, kirola. Estresa kentzeko modua da, berriztu egiten zaitu.

- *Aspaldian zaude Ermutik kanpo?*

Bai, 5 urte daramatzat Nafarroan, tartean Betelun, Zarrakastelu eta Iruñean; orain Tuteran nago. Eta beti ibili izan naiz euskara irakasle.

- *Zein beste esparrutan aritu zara?*

Atletismo eskolak eman izan dizkiet umeei bai hemen zein Nafarroan ere, baina ez nuen denborarik eta utzi behar izan nuen. Bestalde, Iruñeko Mintzakide egitasmoko koordinatzailea izan naiz, euskararen alde egiteko beti nagoelako prest. Orain, Erriberan ‘mintzalagun’ taldetxo sortzekotan gabilta.

- *Beraz, ez duzu hona bueltatzeko asmorik?*

Ez, bertan geratuko naiz.

Dorleta Vidal





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ONAINDIA
HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA
Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

Korrika egitea koldarrena da?

Goizeko 6:25, bost minutu besterik ez iratzargailuak jotzeko. *Gaur paso, gaur ez naiz joango korrika egitera.* Oraindik egunak ez du argitu eta izugarriko hotza egiten du. *Beno, bale... altxatuko naiz, baina hotz handia egiten badu berriro ohera itzuliko naiz.* Txanoa, eskularruak, zira... 10 minutu barru bero edukiko dut. *Eta arratsaldean korrika egiten badut? Ez, hobe orain, bale, oraintxe noa... Ba bai hotza egiten du... eta uf nire beluna!! Hau mina!* Ez dut ulertzen: hotza, logurea, belauneko mina... ez dakit zer egiten dudan hemen ez bazait gustatzen korrika egitea!! *Beno, badirudi mina pasatu zaidala eta hobeto noala... beno, pixkanaka pixkanaka, agian gaurkoa bukatuko...*

Gero eta jende gehiago ikusten da korrika egiten. Zure inguruan

begirada bat botatzen baduzu ikusiko duzu zelan 'moda' hau zurre lagunengana ailegatu den, nahiz eta oso kirolariak ez izan. Goizeko lehen orduetan ikusten ditugu, lanera goazenean, etxera itzultzen garenean, gauean, eguerdiko bazkaltzeko atsedendia aprobetxatuz... Ikusi eta zure buruari galdetzen diozu: "*Baina, zertan dabilta?*" "*Zoratuta daude, ala?*". Eta ez, badakizu ez daudela zoratuta, badakizu eguneroko arazoetatik deskonektatzea edota sasoiaren egotea bilatzen dutela.

Korrika egitea gogorra da, oso gogorra. Beste kiroletan dibertitzen zaren bitartean korrika egiten nekatu egiten zara bakarrik, asko nekatzen zara eta etengabe; zein nekatuta zauden baino ez duzu pentsatzen. Korrika egiten duzue an pentsamendu hauek datozkizu



Jabi Vidal

burura: geratu, utzi... Baina ez, korrikalariek ez, korrika egiten eta korrika egiten jarraitzen dute, gero eta gehiago ahalegintzen, jakin arte burugogortasunagatik, beti aurrera jarraitzen duen astoa bezala, korrikalariak beti egingo duela aurrera. Entzuten dugu korrika egitea ez dela dibertigarria eta ziur aski hori esaten dutenak ez dira joan inoiz korrika egitera. Baina ez, korrika egitea dibertigarria da, ondo sentiarazten zaitu, endorfina gehiago sortzen da eta horregatik normala da bukatzerakoan alaiago eta umore hobean egotea.

Eta gogoratu: koldarrek ez dute korrika egiten, ahal dutenek baizik.

Korrikalariek korrika egiten jarraitzen dute, beti aurrera jarraitzen duen astoa bezala



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es



ILEAPAINDEGIA
Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33




D. ARRAL 97 S.L.
 Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
 arral@arral97.com
 www.arral97.com

Ardo banatzailea:
 Luis Cañas
 Cantosan Verdejo
 Viña 65 Verdejo
 Amaren
 Añada Real
 Cava Oriol Rosell
 Nitida
 Montepinos



Zorionak Mari Leize zure 3. urtebetetzean. Musu handi-handi bat zure familia milakolorearen partez: aitatxo, amatxo eta Maddi.



Otsailaren 12an Zorionak Mare zure 4. urtebetetzean. Musu asko familia guztiaren partez eta oso ondo pasa zure egunean.



Otsailaren 23an Aitxitxe Martinek 82 urte egiten ditu. Etxeko guztion partez zorionak eta ondo pasatu eguna. Musu bat.



Alicia, otsailaren 27an, eta Telmo, martxoaren 1ean Musu pila Udane, aitatxo eta familiaren partez.



Otsailaren 8an Zorionak Ekia!! Urtebete!! Patxo handi-handi bat aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partez!!



Otsailaren 22an Zorionak Olatz!! Ondo pasa zure egunean!!!



Martxoaren 9an Zorionak Maitane, asko maite zaitugu! Ondo pasa zure egunean!! Aimar, aita eta amaren partez!!



Otsailaren 28an Zorionak familia guztiaren eta batez ere Kimetzen partez. Muxu handi-handi bat!!!



Martxoaren 16an Zorionak Izaro! Jarraitu jator eta denon lagun, orain arte bezala.

Hurrengo zenbakirako azken eguna: MARTXOAREN 11n

hamburguesería
TITANIK

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

MUGA **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

T XALAPARTA ABERNA

Etan asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

MALLABIA 1986

Argazki hau Don Jesus abadeak atera zuen 1986. urtean Mallabarrena zaharra jatetxean.

Bertan agertzen dira:
M^a Jesus Estenaga, Paulina Milikua, M^a Conchi Arriaga, Gloria Rubio, Petra Caceres, Milagros Abendibar, Pepi Pescador, Belen Gabilondo, Lurdes Rodriguez, Toñi Leon, Carmen Arregi, Marije Rodriguez, M^a Luz Azurmendi eta Begoña Aranzamendi.



ERMUA 1965



Argazki hau Santixau bezperan atera zen, 1965 edo 1966 urteetan.

Bertan agertzen dira, ezkerretik hasita: Jose Luis Guisasola, Alazne Areitioaurtena, Julian Etxabe, Andoni Areitourtena, Javi Arrieta, Agustin Bilbao, Maite Areitioaurtena eta Alberto Aldalur. Lurrean jarrita, Elias Unanue eta Goyogana.

Agustin Bilbaori eskainita.

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Quetzal berria!!
[arropa, bitxiak, opariak...]
ekinetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

2010ean egindako inkesta baten arabera, estatuko % 58k ez du San Valentín eguna ospatzen. AEBetan, berriz, 13 milioi euro baino gehiago gastatzen dute otsailaren 14an opariak, zorion-txartelak eta loreak erosten.

**San Valentín eguna ospatu duzu? Asmatutako eguna dela uste duzu?
Bestalde, hitz gozo bereziren bat erabiltzen duzu zure bikotekidearekin?**



Ez dut sekula ospatu, baina aurten bai: arrosa horiz osatutako lore-sorta itzela oparitu diot bikotekideari. Ez zait iruditzen ospatzeko moduko eguna denik, baina... aurtengoa berezia izan da. Bestalde, bere izenez deitu ohi diot bikotekideari, nahiz eta hitz bereziren bat ere badugun.

Roberto Cerdeiro, 32 urte



Normalean ez dut ospatzen, baina aurten bai: oparitxoa jaso dut! El Corte Inglesak asmatutako eguna dela pentsatu izan dut beti, guri gauzak erosarazteko; baina tira, ez zait gaizki iruditzen jendeak ospatzea. Gure arteko hitzei dagokionez, ez, ez dugu ezer berezirik erabiltzen.

Ana Carrasco, 35 urte



Ez, ez dut ospatzen, beste edozein egunetan ospatzea nahiago dut: urte guztian izan beharko litzateke San Valentín! Kontsumitzeko ipini diguten eguna da, 'Corte Inglesaren eguna' deitzen diot nik. Bestalde, 'txurri' esaten diot beti nire bikotekideari.

Mari Carmen González, 29 urte



Ez, ez daukat bikotekiderik eta ez dut ospatzen. Neskalaguna izango banu ere, ez nuke ospatuko. Nahi duena egin dezake bakoitzak, baina niretzako 'San Corte Inglés' eguna da. Inguruan ere ez nuen egun hau ospatzeaz ezer entzun.

Oier Abarrategi, 30 urte



- San Valentínekofa afaria prestatzen? Noren zain zaude ba?

Tasio eta Sabino



- Bai zera! Elektrizitatea aurrezteko da, izugarri garesti dago!

ZINEA

1etik 3ra:

'Presentimientos' + 'Agosto'

8tik 10era:

'12 años de esclavitud' + '¿Qué hacemos con Maisie?'

15etik 17ra:

'Cuando todo está perdido' + '20 años no importan'

22tik 24ra:

'Monuments Men' + 'Nebraska'

29tik 31ra:

'8 apellidos vascos' + '300: el origen de un imperio 3D'

Hainbat ordutegi.
Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 2:

'Bran Barrabas' (euskeraz)

Hilak 9:

'La Lego película'

Hilak 16:

'En busca del medallón perdido'

Hilak 23:

'Los Cinco y el misterio de la joya escondida'

Hilak 30: '

Las aventuras de Peabody y Sherman' 17:00etan.
Ermua Antzokian.

ANTZERKIA

Hilak 7:

'Fistera', Blanca Portillo eta Ángeles Marínekin. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 15 €



Hilak 28:

'Hamlet', Artedrama taldea (euskeraz). 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 10 €

UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK

Hilak 8:

Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Udal Liburutegian.

Hilak 21:

Pailazoan ikuskizuna: 'Bizipoza', Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen eskutik. 17:00 eta 19:00etan. Sarrera: 6€

Hilak 22:

Haurrentzako ikuskizuna: 'Txontxongiloak mugitzen', Corrado Massachiren eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

MUSIKA

Hilak 8:

Musika eta dantza jaialdia: Andaluziako eguna. 17:00etan. Antzokian.

Hilak 14:

Pedro Guerra. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 15:

Blues Kontzertua: Nico Wayne Touissant & Michel Ozon. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 8€

ERAKUSKETAK

Hilaren 2ra arte:

Taldeko erakusketa: 'Gunearen inguruko prozesuak'.

Hilaren 3tik 14ra:

Margoa: Ruth Armas Alemán.

Hilaren 17tik 29ra:

Txontxongiloen erakusketa: Corrado Massachi. 18:00etatik 20:00etara. Lobianon.

BESTELAKOAK

Hilak 15:

Ekitaldi gastronomikoa: Zaldikoa erretzea. 18etatik. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 22:

Sagardo jaia: hainbat ekitaldi. 11:00etatik. Orbe Kardinalaren plazan.

Patxi López

ZINE-KLUBA

Hilak 6:

'Pussy Riot: una plegaria punk'

Hilak 13:

'La Venus de las pieles'

Hilak 20:

'La mujer del chatarrero'

Hilak 27:

Laburmetraien emanaldia: Laburbira. 20:30ean. Ermua Antzokian.

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com


**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZALEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net

PINTURAK

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

AROTEGIA

iraner
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 - iranercb@gmail.com

ITURGINTZA

Igeltserotza - Iturgintza
Errekalde

Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



san pelayo

clínica dental • hortz klinika



Inplanteak - Aho kirurgia

Ortodontzia

Periodontzia

Zuriketak - Estetika

Odontologia orokorra

Protesiak

P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

OCASO - DENTYRED - AZKARAN

Dra. Olatz García Arregui
San Pelayo 5, 1. Ermua (Bizkaia)

943 17 04 04